



5. ROMUALDA ZULOAGA ARTETXE PLAZA: AITZINDARIA IZATEAREN ZAILTASUNAK

2016an, Berdintasunerako Kontseiluaren bidez, Romualda Zuloaga Artetxeren izena proposatu zen bere jaioterria zen Galdakaoko kaleetako bati bere izena jartzeko. Azkenean, 2017ko martxoaren 8an, Romualda Zuloaga plaza ireki zen. Bertan, hain zuzen ere, bere ibilbidea aldarrikatu zen, herritarrek omenaldia eskaintzeko botoa eman ondoren. Horrela, emakume askok udalerriko kulturaren bizitzan egindako ekarpena jarri zen agerian. Horrez gain, Emakumeen Etxea ere eraikiko dute plaza horretan.

2020an, Erabide Emakume Elkarteak partaidetzazko prozesua sustatu zuen, Romualda Zuloaga Artetxe Wikipedian agertu zedin. Gainera, 2024an, beste bat bultzatu zuen, Tximelarre kaleko 29an panderojolearen omenezko horma-irudia egiteko. Askorentzat ezezaguna zen arren, tokian tokiko artistak sendotasunez sustatu zuen emakumeek euskal folklorean duten garrantzia, euren soinua garatu zutelako gizonak nagusi ziren munduan.

BAZENEKIEN...

2024n Gontzal Carrascok idatzitako 'Romualda Zuloaga. Panderoaren bidaia hilezkorra' liburua (Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak) argitaratu zela?

MI(cro)RELATO

Marzo con 'm' de mujer

Soplaba el viento de marzo, ese que hace bailar el agua. Ese que acerca la música a quien escucha con el alma. Cabalgaban notas prohibidas entre calles y gruesas paredes, liberando irrintzis oprimidos que torturaban las gargantas.

Sopla el viento de marzo. Así susurra la nostalgia. Así resuena el sonido de la pandereta entre las manos de Romualda.

Mari Cruz Cuesta Susmozas



**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK**
EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA